

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Ostirala, 2013ko maiatzaren 24a. IX. urtea. 2.600. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Bihar Segundo Montes en aldeko eguna, Zizurkil Goian

Zizurkil El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearekin senidetu zela hogei urte bete dira; egun osoko festa izango da **o6**

## Txaranga eta lagunak euskararen alde

Ahora! Asteko 'Bonberenea Txaranga eta Lagunak' saioa gaur izango da, 22:00etan **o2**



Sakramentinoetako patioa atondu dute kontzertu berezirako. I. URKIZU



→ **Kalitatezko bisigua, Tolosan.** Txinparta elkarteak Bisiguaren Festa antolatu du maiatzaren 31tik ekainaren 2ra, eta, ohi bezala, Orioko hiru sukaldarik pres-tatuko dute arraina parrilan. Aurten, berritasuna Sukaltalkaren ikastaroa izango da. **o5**

## Olaizolaren aurkakoa izango du Abel Barriolak, bihar Labriten

Buruz Buruko Pilota Txapelketako final-laurdenetako partida jokatu du leitzarrak **o3**

## Xabier San Sebastian txirrindularia, proba bat egitera Belgikara

Omega Pharma-Quick Step taldetik deitu diote hiru egunetako proba egiteko; jubenil mailako Europako 13 txirrindulari ariko dira **o4**



Doan Zumbas, eta eskaintza ospatzen dira 20. Maiako DuGa konpainia 2013/2014ko hitza. Baina kontatu gaitu, eta eta...  
 5 GAUEKO EGONALDIA \*\*\*\* Cabo de Gatan edo Peñiscolan, DOAN  
 2013ko maiatzaren 24a. IX. urtea. 2.600. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

BENETAKO 20 Mb  
HILEAN 33,8€  
Solte ordaintzuta

eta

Eta mugikorrean edo TBan alla ematen baduzu

### OPORRAK EUSKALTELEKIN

Aurten, oporetara eramango zaitu Euskaltelek. Gure Trio eskaintza (Mugikorrekin edo TBekin) kontatutaz gero, bost gauetako egonaldia\*\*\*\* (Cabo de Gatan edo Peñiscolan) opartuko dizugu. Itxerri ibil, lehenbiziko 250entzat bakarrik baita opari hau.

**logikeline**  
San Frantzisko, 19

Berriak  
ofiziala

# Sekula gehiago errepikatuko ez den hitzordua

Sakramentinoetako patioan emanaldia izango da gaur gauean, Bonberenea txaranga eta lagunekin

## Itzea Urkizu

Ahora! Asteko egitarauko hitzordurik nabarmenetako bat izango da gaur, *Bonberenea Txaranga eta Lagunak* kontzertuan. Txarangarekin batera, hainbat kolaboratzaile ariko dira taula gainean, eta denek nabarmendu dute emanaldiaren berezitasuna; kontzertua bakarria izango dela diote.

Batetik, lekua bera azpimarratzekoa da, Laskorain ikastolako Sakramentinoen patioan ari baitira jada, oholtzari azken ukitutak ematen; antolatzaileek, besteak beste, ikastolako ikasle nahiz guraso ohiekin keinu bat egin nahi izan diete modu honetara, eraikin eta patio zahar-berritua ikusi

ahal izango baitute. Gogora ekarri behar da, Laskorain ikastolako eraberritze lan hori finantzatzeko eta Usabalgo eraikina handitzeko baliatuko duela 2013ko Kilometroak jaia.

Emanaldiaren formatua ere berezia izango da, ordea, txaranga baino, banda edo orkestraren izatera hartuko dutelako oholtza gaineko musikari gazteek. Eurekin batera, Humuseko Natalia Garmendia, Pirritxen eta Porrotx, Glaukomako Juantxo Arakama, Su ta Garreko Aitor Gorosabel, Doctor Deseoko Francis Diez eta Zea Mayseko Aiora Renteria ariko dira; guztia Jon Altuna txaranga zuzendariaren gidaritzapean abiaraziko dute.

Aurretik, antolatzaileek Zerkausion afari legea egiteko gonbitea egin dute, larumbatera bitarte sardina jatea izango baita. Afalondon, kalejiran igoko dira Sakramentinoetara. Kontzertua 22:00etan hasiko da.

Azkenik, zenbait sorpresa gorde dituzte arduradunek, emanaldi «errepikaezin» honetarako. Sarrerak eskuragarri daude, oraindik, 10 euroren truke, Denak, Meskal, Raku eta Orbela tabernetan, Bonberenan, Ahora! dendan eta Laskorain ikastolan.



## ↓ Kontzertuko kolaboratzaileak

### Juantxo Arakama

Glaukoma

«Nire ustez kontzertu hau jaialdi errepikaezin bat da, oso zaila delako, ezinezkoa ez esatearren, txaranga hau horrelako maila duten hainbeste lagunekin zuzenean ikustea. Kontzertu hau, batetik, erronka bat da niretzat, txaranga batekin zuzenean abestuko dudana lehen aldiz izango delako. Bigarrenik, ohore bat ere bada, Bonberenea Txaranga, gaur egun Tolosan dagoen musika erreferente garrantzitsuenetakoa izango delako ziurrenik. Eta azkenik, festa bat izango da, eta orain arte egindako lanaren isla. Txaranga bera, bakarrik, sekulako ikuskizuna baldin bada, pentsa Francis, Aiora, Aitor Gorosabel eta gainerakoekin... Nik jendeari argi eta garbi esango nioke, kontzertu hau ez dela errepikatuko; kontzertu hau bakarria izango da, eta galdu nahi ez duenak hain egon beharra dauka».

### Aitor Gorosabel

Su ta Gar

«Niretzat, benetan, oso gauza hunkigarria da. Hain estilo desberdinetako hainbeste musikari norberaren musika erabiltzen ikustea, niretzat beste plus bat da, harro sentitzeko beste arrazoi bat. Gainera, txaranga izena ez da oso aproposa, herrietan izaten diren musika banda erdi profesional horietakoa delako hau niretzat. Musikari oso onak ariko dira, eta bandaren soinua izugarri ona da. Ni hasieran harrituta geratu nintzen, oso harrituta, bertsioen diskoa argitaratu zutenean; zein afinatuta eta zein ondo entzuten den. Entseguetan ere, errepikatu egin dugu kantu bakoitza, baina behin jota ere nahikoa izango zen. Edozein pertsona animatuko nuke emanaldia ikustera, musikari zoragarriak eta gazteak daudelako, gauzak egiteko goarekin. Merezki duen zerbait egiten ari dira, eta hau guztia Pirritx eta Porrotxekin batuta, nahasketa benetan ederra dela uste dut. Etortzen ez denak pena izango du».

formatu honetan lehen aldiz abestea. Etxeko jendea izanda, gainera, ohore bat izango da bertan egotea».

### Aiora Zulaika

Pirritx pailaioa

«Kontzertua oso-oso berezia izango da. Txaranga gazteek entsegu ordu asko sartu dituzte, eta Ahora! proiektuan Bonberenearen aportazioa hau izatea nahi dute beraiek. Guk Bonberenearekin harremanetan eta gauzatxoak eginez urteak daramatzagunez, ez genuen zalantzarik izan. Lehenago disko bat ere egin genuen elkarrekin, eta beraz, guk ere, sentitu, pentsatu eta ahora, gazteekin. Zuzenean lehenago ere kantatu izan dugu txarangarekin, baina guk saio handi handiak egin izan ditugunean, BECen nahiz Kurasaalean. Hiriburu guztietan elkarrekin izan gara, bai Hego eta bai Ipar Euskal Herrian. Baina desberdina da zure saioan, pailazoak beren sketxetan ari direla, txaranga etorri eta *Maita zaitut* zuzenean abestea, edo kontzertu hau. Orkestra formako saioa izango da, eta kantari handiekin parte hartuko dugu gainera. Pailazoak gustura jardungo gara, eta guretzat ere erronka polita da».

### Natalia Garmendia

Humus

«Oso-oso kontzertu berezia izango da egingo duguna. Lagun asko elkartzeko gara, eta guztiok elkarrekin egindako zerbait izango da; oso pozik nago egia esan. Gainera, txaranga kideak betidanik eza gutzen ditudan arren, lehen aldiz izango dut eurekin zuzenean kolaboratzeko aukera, eta oso berezia izango da niretzat,

## ↓ Iragarki laburrak

### LAN BILA

**Etxeko lanetarako.** Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume eskaldunak bere burua eskaintzen du.

Gainera, autoa ere badauka lanera iristeko edo joan-etorriak egin ahal izateko. Interesa duen edonork, dei dezala honako telefonoz zerbaitetara: 943 696882 edo 606 521992.

**ELUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**www.inmosalbide.com**

**SALBIDE**  
Higiezinen zerbitzuak

**Aia.** Baserria berri berria. 125m<sup>2</sup>-ko bi solairu ditu. 25 m<sup>2</sup>-ko terraza. Terrenoa, 110.000m<sup>2</sup>. 50.000.000 pezeta.

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

**Bergara.** Askarruntz auzoa. Guztiz berriua: bi logela, diseinuzko sukaldia, berokuntza sistema gasarekin. 150.000euro!

**Donostia.** Amara-Amezketakalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Izkina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.

**Iraeta.** Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. Prezio berria: 35.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Azken Portu. 92m<sup>2</sup> ditu. 4 logela, terraza, trastelekua eta igogailua. Erreforma behar du. Prezio berria: 54.000.000 pezeta.

**Zarautz.** SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, terraza, trastelekua eta garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugela. Erreforma behar du. 41.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96

## Irudia



## ROBOTEK BERTSOTAN ERE IKASI DUTE

Laskorain ikastolako neska-mutilak Donostiako Informatika Fakultatean izan ziren atzo, erronka bitxi batekin: robotekin bertsotan aritu ziren. Ixa Taldeak eta EHUko Robotika sailak euskara eta teknologia berriak uztartu dituzte, eta egitasmoa

ezagutzera joan ziren ikasleak. Lanerako gai interesgarria da bertsolaritza, adimen artifiziala, hizkuntzalaritza eta robotika jorratzerakoan; robotari, ordea, benetako bertsolarien bat-batekotasuna nahiz koherentzia falta zaizkio. HITZA

# Abel Barriolak Oinatz Bengoetxearen ondoan egon nahi du finalerdietan

Herriartekoaren eta I. Ogi Berri Txapelketaren jardunaldi berriak gaur hasiko dira

## Asier Imaz

Buruz Buruko Esku Pilota Txapelketaren final-laurdenetan areio benetan gogorra edukiko du Abel Barriola leitzarrak: Aimar Olaizola iazko txapelduna. Partida Iruñeko Labrit frontoian jokatuko da bihar, 18:00etan (Nitro telebista katean zuzenean izango da ikusgai).

Olaizola II.aren eta Barriolaren arteko lehiaren irabazleak Urrutikoetxearen aurka jokatuko du finalerdietako partida, ekainaren 1ean, larunbata, Bilboko Bizkaia frontoian.

Bigarren finalerdia, Bengoetxea VI.aren eta Martinez Irujoaren artekoa, ekainaren 2an jokatuko da Donostiako Atano II.a pilotalekuan.

Asteburu honetako partidaren harira, *Berría* egunkariak Abel Barriolari elkarrizketa egin dio, eta leitzarrak, beteroen papera aldarrikatu nahi izan du. Aimar Olaizola beste maila batean dagoen pilotaria dela dio Barriolak, nahiz eta onartu, ezustekoa emateko gogotik ari dela lanean: «Kirolean beti daude ezustekoak, eta ilusio horrekin egiten dut lan».

## Herriartekoa

Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa, esku pilotari dagokiona, final zortzirenetan dago. Joanekeo partidak asteburu honetan jokatuko dira, eta eskualdeko sei herri lehiari ariko dira. Txapelketa bi adarretan banatu dute, eta mul-

tzoko onenek euren artean jokatuko dute finala. Alde batetik, Zizurkil dago. Final zortzirenetan Bergararen aurka jokatzea egokitu zaie zizurkildarrei. Joanekeo partidak etxean jokatuko dituzte, gaur, 17:30ean.

Beste adarrean aurkitzen dira gainontzeko herriak. Alegiak eta Bidegoianek elkarren aurka jokatuko dute. Joanekeo norgehiagokak igandean jokatuko dira Alegian, 16:30ean hasita. Tolosa eta Berrobiren artekoa Beotibarren jokatuko da gaur, 20:00etatik aurrera. Amezketak, azkenik, etxean ekingo dio kanporaketari, gaur, 20:00etan. Aurkaria Hernani izango dute amezketarrek. Itzulerako partidak hurrengo asteburu jokatuko dituzte herri guztiak.

Gipuzkoako Herriarteko Zesta Punta Txapelketari dagokionez, Tolosako pilotariak hirugarren



I. Ogi Berri Txapelketako Erasun, Artola eta Iribarria pilotariak. I. GLANDA

jardunaldia jokatuko dute gaur, Donostiaren aurka. Zesta punta jaialdia Gipuzkoako hiriburuan izango da, Karmelo Balda pilotalekuan, 18:30ean.

## I. Ogi Berri Txapelketa

Migel Soroaren Omenezko I. Ogi Berri Txapelketaren jardunaldi berria jokatuko da bihar, larunbata, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Hiru partida jokatuko dira 16:30etik aurrera. Kadeteetan, Errandona-Mendia bikoteak Egiguren-Belokiren aurka jokatuko dute. Urte bikaina daraman Errandona bertatik bertara ikusteko aukera egongo da lehia

honetan. Egiguren tolosarrak ez dio erraz jarriko, sena handiko pilotaria dela erakutsi nahiko baitu.

Bigarren partida jubenilena izango da. Victor-Rezusta eta Artola-Peñas irteko dira kantxara. Aurreko koadroetan lehia benetan ikusgarria aurreikusten da.

Hirugarren norgehiagoka etorkizuneko pilotariena izango da. Alde batetik, Iribarria-Erasun. Iribarriaren ezker zoragarria; Erasunen joko segurua; Larrañagaren sendotasuna eta Aburuzaren gogortasuna izango dira lehia honetako osagaiak.

# Intxurreko hiru futbol talde finala jokatzen gertu

Jubenilek, kadeteek eta infantilek Gipuzkoako Koparen finalerdia bihar eta etzi jokatuko dituzte

## A. Imaz Alegia

Alegiako Intxurre Elkarteko futbol taldeak denboraldiaren amaieran daude. Batzuk, partida erabakigarrien aurrean, eta besteak, atsedenaldira garaian indarrak berritzen, hurrengo denboraldiari begira.

Elkarteko arduradunak «oso gustura» daude aurten Intxurrek egin duen paperarekin: «Erregional mailako taldea oso ondo ibili da urte guztian zehar. Igoerako fa-

sean sartzeko esperantzak bagenituen, baina ez da posible izan eta bosgarren amaitu dute. Hala eta guztiz ere, jokalariek gutxiarekin ibili garela kontuan hartuta, oso gustura gaude».

Infantil neskek ere amaitu dute denboraldia, hirugarren postuan. Erregional mailako taldearekin bezala, infantilekin «gustura» agertu dira Intxurreko ordezkariak. Hurrengo urtean zer gertatuko den, ordea, ez dute argi. Jokalari batzuk kadete izatera pasako dira, eta hor taldea osatzeko «nahiko zail» izango dutela esan dute.

Gainontzeko beste hiru taldeak oraindik lehiari daude, Gipuzkoako Koparen finalerdietan, hain zuzen ere. Partida erabakigarriak larunbategi eta igandean jokatuko

dituzte, eta garaileek finalerako txartela lortuko dute. Azken partida hauek ekainaren 2ko asteburu jokatuko lirateke, nahiz eta oraindik erabat zehazteke egon ordua eta lekua.

Finalaren atarian egon arren, orain arte egin duten lana azpimarratu dute Intxurretik: «Jubenilek oso denboraldi ona egin dute, eta euren multzoko lehen postuan amaitu dute urtea. Jokalari kopurua medio, erregionalen jokatu behar izan dute batzuk, eta ez da erraza izan, izan ere, asteburu bi partidetan egon denik izan da». Kadeteekin eta infantilekin gauza bera gertatu dela esan dute Intxurretik. Lortutako kirol emaitzei, beraz, tesuingurua gehitu behar zaie balantzea egiterako unean.



Intxurreko jubenilak Gipuzkoako Koparen finalerdietan daude. HITZA

## ↓ Egutegia

### BIHAR, MAIATZAK 25

- 11:00. Alegian, infantilen partida: Intxurre-Zarautz. Gipuzkoako Koparen finalerdia.
- 17:00. Kadeteen partida Antzuolan, bertako taldearen aur-

ka. Gipuzkoako Koparen finalerdia.

### ETZI, MAIATZAK 26

- 16:30. Alegian, jubenil mailako partida: Intxurre-Egintza. Gipuzkoako Koparen finalerdia.



## saridunak

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pare bat** du

### Sardina jatea

Ahorrak! Astearren barruan, 20:00etatik 23:00etara

- Ostiralerako:
- Ines Berasategi (Tolosa)
  - Larunbaterako:
  - Begoña Altuna (Lizartza)

HITZAK harpidedunentzat **bi sarrera pare** ditu

### Bonberenea Txaranga eta Lagunak KONTZERTUA

- Enrike Arostegi (Tolosa)
- Nekane Urizar (Tolosa)

Maiatzak 24, ostirala, 22:00etan Tolosako Sakramentinoetan



Sarrerak leihatilan bertan izango dituzte.



## sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **bi sarrera pare** ditu

- Karmen Iraeta (Tolosa) • Izaskun Karrera (Tolosa)



Maiatzak 26, igandea • 12:00etan Tolosako Leidorren

Sarrerak leihatilan bertan izango dituzte.





# Bisiguaren Festarekin berriro elkartuta, Tolosa eta Orio

Otorduak egingo dira maiatzaren 29an eta ekainaren 1ean eta 2an; Sukaltalkako ikastaroa da, aurten, berritasuna

**Imanol Garcia Landa** Tolosa

Tolosako Txinparta elkarteak Bisiguaren Festa antolatuta du beste behin. Tolosa eta Orio herrien arteko lotura gastronomikoari jarraipena emango diote, beraz, eta horretarako hiru parrilero oriotar izango dira bisigua prestatzeko Orio erara: Joxe Mari jatetxeko Mikel Manterola, Katxina jatetxeko Joxe Migel Zendoia eta Xixario jatetxeko Luis Mari Uranga. Maiatzaren 31n afaria, ekainaren 1ean bazkaria eta afaria, eta ekainaren 2an bazkaria egingo dituzte Txinparta elkartearen bertan.

Mikel Uribe Txinpartako lehendakariak azaldu duenez, «jendeari hain preziatua den produktua gerturatu nahi diogu, era egokian sukaldatutakoa, parrilero onenen eskutik eta era tradizionalan». Zendoia sukaldariak dioenez, Bisiguaren Festa egun merkatuan dagoen bisiguri «onena» prestatuko dute: «Tarfian harrapatu eta 24 ordutan jatezera ekartzen dute. Amuarekin harrapatzen dute, eta sakonta-



Bisiguaren Festaren aurkezpena egin zuten, atzo, Txinparta elkartearen. i.e.l.

sun handietan ibiltzen da. Oso kalitate handiko arraina da». Uranga sukaldariak Tolosara «gusturara» etortzen direla azaldu du: «Harreman handia dute Tolosak eta Oriok. Aurten ere, beste urteetan bezala, ondo aterako da festa».

Hasier De los Rios Tolosako Udaleko zinegotziak txalotu egin du Txinparta elkartearen festa antolatzeagatik, eta gogora ekarri du asteburu horretan ere Lore eta Landare Azoka eta Artisautza Azoka izango direla.

Menuaren plater nagusia, noski, bisigua izango da, baina beste gutizia batzuk ere izango dira: antxoak gaztetan, tomate entsalada hegaluzearekin, zainzuriak eta *Bixigoxo* postrea. Afariak

20:00etatik aurrera izango dira eta bazkariak 14:00etatik aurrera. Menuak 45 euro balio ditu, eta txartela eskuratu nahi duenak 943 69 74 13 telefono zenbakira deitu behar du.

## Bisigua prestatzen ikasteko

Aurten berritasuna Sukaltalka antolatuta duen ikastaroa da. Maiatzaren 29an, 19:00etatik 21:00etara, bisigua Orio estilora nola erretzen den erakutsiko dute parrilero oriotarrek. Bisigua prestatu ondoren, afaldu egingo dute bertan ikastaroan parte hartzen dutenek. Ikastaroak 25 euro balio ditu eta izena emateko 943 01 76 36 edo 671 79 45 49 zenbakietara deitu edo [info@sukaltalka.com](mailto:info@sukaltalka.com) helbidera idatzi behar da.

# Festa giroa izango da, gaur eta bihar, Txaraman

**I. Terradillos** Leaburu-Txarama

Txaramako jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan, hau da, gaur eta bihar. Gaur 21:00etan botako dute festen hasiera iragarriko duen suzuria, eta ondoren barrikotea egingo dute.

Biharko, berriz, egun osoko egitaraua prestatu dute. 11:00etan, arku tiroa izango da, eta 12:00etan toka txapelketa; 13:00etan, berriz, pintxo dastatzea egingo dute, ja-

teko eta edateko aukera izango delarik. Arratsaldean, herriko dantzari gazteen emanaldia izango da ikusgai, eta ondoren, umeentzako jolasak eta txokolata prestatuko dituzte. 21:00etan auzotar guztiak herri afarian bilduko dira. Gaua girozko, berriz, Iker Zubeldia eta Jexux Mari Peñagarikano bertsolariak ariko dira, Joxe Ramon Aldasorok txisteak kontatuko ditu, eta herriko trikitilarien doinuak izango dira.

## → Laburrak

### Argentinako euskal diasporari buruz hitzaldia

**BERROBI** Argentinako euskal diasporari buruzko hitzaldia antolatuta dute, astelehenean, 20:00etan, Etxolan. Cesar Arrondo La Plata Unibertsitateko irakaslea izango da hizlaria, eta *Euskal diasporaren jatorria, bilakaera eta rola Argentinan* da hitzaldiaren izena.

### Hipo eta Tomax pailazoan emanaldia, bihar, Leidorren

**TOLOSA** Minbiziaren Aurkako Elkarteak Gipuzkoan 25 urte bete dituela eta, Hipo eta Tomax pailazoek *Papo-Pupa* emanaldia emango dute bihar, 17:00etan, Leidor aretoan. Sarrerak hiru euro balio ditu.

### Asuncion klinikako langileak, mobilizazioetan

**TOLOSA** Asuncion klinikako langileak, Inviza enpresakoak, mobilizatzen ari dira blindajedun eta murrizketarik gabeko lan hitzarmena lortzeko. Bihar, larunbata, Trianguloan izango dira 11:00etatik 12:00etara, nahi duen guztiari tentsioa hartzeko.

### Astelehenean hasiko da XIX. Musikaria

**TOLOSA** Eduardo Mokoroa udal musika eskolak XIX. Musikaria musika astea antolatuta du, datorren asterako. Lehenengo emanaldia astelehenean, hilak 27, izango da, eta Igor Arostegi perkusio jolea ariko da. Asteartean, hilak 28, izango da bigarrena, Xabat Urkola eta Julen Cestero piano joleekin. Bi saioak 19:00etan izango dira, udal musika eskoren aretoan.

## Irudia Amasa-Villabona

### ANAKRUXA TALDEAREN EMANALDIA

Amasa-Villabonako Mintzola zentroaren aretoan musika emanaldia egin berri dute, Loatzoko musika eskolak antolatuta. Helduen bi taldek parte hartu zuten kontzertuan. Batetik, Ategorrietatik etorritako Swin Orkestrak, eta bestetik, Loatzoko Anakruxa taldeak (irudian). HITZA



**GAURKO ESKAINTZA**

**Mauka berria**

**Etorri Arabako Errioxaz gozatzera**

LA MOLINERA ETXEA  
Muriarte auzoa, 22  
01307 Samaniego (ARABA)  
Tel.: 945-623 375 / 629975546  
[reservas@lamolineratxea.com](mailto:reservas@lamolineratxea.com)  
[www.lamolineratxea.com](http://www.lamolineratxea.com)

**Prezioa 99€**

**www.mauka.eu** **berria taldea**

## BIRZIKLAPEN BIRA

**Nik birziklatzen dut.**

Guztitan artean, edertu dezagun Tolosaldea, hobetu dezagun mundua

**GAUR TOLOSA HERNIALDE BIHAR ANDOAIN**

Maiatzak 27  
**ADUNA LEABURU**

Maiatzak 28  
**IKAZTEGIETA BERASTEGI TOLOSA**

Maiatzak 29  
**ALTZO ELDUAIN**

Ekainak 4  
**OREXA**

Ekainak 5  
**LARRAUL**

Ekainak 6  
**GAZTELU**

[www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)





Pedro Mari Otaño ikastetxeko ordezkaria, Henry Ortiz ikastetxeko arduradunarekin bien arteko hitzarmena sinatzen. HITZA

Bi hamarkada pasa dira Zizurkilgo herria Segundo Montes komunitateari laguntza ematen hasi zenetik. Senidetze honen garrantzia sustatzeko, Senidetze Eguna ospatuko dute bihar.

## Hogei urte elkarri lagunduz

Mikel Iraola Zizurkil

**H**ogei urte bete dira Zizurkilgo herria El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearekin senidetu zenetik. Harreman hori bailarara hedatu zen, eta egun, Meanguera eskualdearekin anaiaratu dago Aiztondo.

1993 hartan, Mikel Arrastoa zen Zizurkilgo alkate. Euskal Fondaoren bitartez, El Salvadorren aurrea eramaten ari ziren proiektu batzuk ikustera joan ziren. Segundo Montes harrera bikaina egin zieten. «Kantuan eta musika joz hartu gintuzten. Ondoren, Euskal Herrian zehar bira bat egitera ekarri genituen, eta handik sortu zen senidetzea» dio alkate ohiak.

Harrez geroztik, Aduna, Asteara, Amasa-Villabona eta Zizurkilgo udalek euren aurrekontuetako diru kantitate bat gorde izan ohi dute urtero komunitatean hainbat proiektu garatu ahal izateko, hala nola, etxebizitzak egitea, edota horietara ura eramatea.

Udalez gain, herritarrengandik

sortutako beste hainbat laguntzeko bide zabaldu dira. Esate baterako, San Millan eta Pedro Mari Otaño ikastetxeek, Henry Ortiz eta El Barrial ikastetxeak laguntzen dituzte eskolako materiala, ordenagailuak eta beste hainbat gauza eskainiz. Herritarrek emandako laguntzatik ere, bertako gazteek goi mailako ikasketak egin ahal izateko bekak finantzatzen dira.

Trukean, «elkartasuna, irribarra eta nortasuna» jaso dituztela dio Arrastoa. «Gure partetik gauza ez da sobratzen zaiguna ematea, behar dutena ematea baizik. Euren guri, elkartasuna ematen digute. Asko sufritu duten, eta sufritzen ari diren arren, ematen diegun guztia horrengatik nola eskertzen diguten ikusteak, asko baliatu du. Baloreak transmititzen dizkigute».

### Euskal Herria bisitatuz

Elkarri lagunduz bete diren bi hamarkada hauek aitzakiazat hartuta, Maiatza Saltsanen barnean antolatuta diren ekitaldietan parte hartzeko El Salvadorretik hainbat

### ↓ Egutegia

#### SENIDETZE EGUNA

- **11:00.** El Salvadorreko kideei harrera instituzionala egingo zaie Zizurkilgo Udaletxean.
- **12:00.** Harrera herrikoia Pedro Mari Otaño Plazan, Porrotx pailazoaren emanaldia eta Herrialde Katalanetako konpartsa baten eskutik. Bertsolariak eta dantzariak ere izango dira.
- **13:00.** Talo solidarioak eta Empordako ardo dastaketa.
- **14:30.** Bazkari herrikoia elizako arkupean. Tiketak salgai Zizurkilgo Atxulondo eta Iriarte jabetxeetan.
- **Aratsaldean.** Anje Duhalde eta Fermin Balentziaren kontzertua.

lagun etorri dira Euskal Herrira, tartean, Jovani Diaz, Meanguera alkatea, Dario Chicas diputatua eta Sigrifido Reyes, El Salvadorreko Legebiltzarreko presiden-

tea. Aste honetan zehar Euskal Herriko hainbat txoko bisitatzen ibili dira.

Pasa den ostiralean, esaterako janari truke gastronomikoa egin zuten. «Oso pozik daude, eta emandako laguntza asko eskertu digute. Era berean, asko arduratu dira Euskal Herriak bake-biderako bizi duen prozesuaz, presoen egoeraz, etab. Azken finean, anai-arrebak bezala gara» azaldu du Arrastoa.

### Senidetze Eguna, bihar

Hogei urteko harreman estu honen ospakizunei amaiera emateko, Senidetze Eguna ospatuko da bihar Zizurkil Goian. Horretarako, senidetzearen parte ere badiren Herrialde Katalanetako 42 lagun etorriko dira fanfarre eta guzti. 11:00etan harrera instituzionala egingo da, eta hamabietan kalejira herrikoia eta guzti. Ondoren, denak batera paella bazkalduko dute. «Senidetzea ez da proiektuak egitea soilik, giro onean, denok parte hartu eta elkar ezagutzeari baizik».

## → Laburrak

### Gutun Lehiaketako sari banaketa, gaur

**LARRAUL** Aiztondo VI. Gutun lehiaketako sari banaketa egingo dute gaur, 18:00etan Larraulgo kultur etxean. Maila bakoitzeko irabazleak, berak idatzitako gutuna irakurriko du, eta ekitaldia Andoaingo eskolako biolin jole talde batek alaituko du. Sari banaketaren ondoren, zizka-mizka txiki bat izango da bertaraten diren guztientzat.

### Ur mararen sarreraren inaugurazioa, igandean

**ALKIZA** Koldobika Jauregiren Ur mara museoko sarreraren inaugurazioa egingo da igandean 12:00etatik aurrera. Lehenik eta behin, tibetar ikurrinak ezarriko dira. Ondoren, barrenatzailerak erakustaldia izango da, eta azkenik, Diridira taldeak emanaldia eskainiko du.

### Haur eta gazteen kantu txapelketa, bihar

**AMASA-VILLABONA** Euskal Herriko haur eta gazteen kantu txapelketako Gipuzkoako emanaldia bihar jokatuko da Amasa-Villabonako Gurea Antzokian. Ekitaldia, 17:30ean hasiko da, eta bertan bi mailatan banatzen dira: 6 eta 10 urte bitartekoak, eta 10 eta 15 urte bitartekoak. Maila bakoitzetik bina ordezkari hartuko dute parte ekainaren 16an Burlatan jokatu den finalean.

### Krisia eta lehiakortasuna hizpide Lehiberrin

**TOLOSALDEA** Krisia, lehiakortasuna eta enpresen helitzea izeneko jardunaldi berriemaile bat antolatuta du Lehiberrik datoren astearterako. Atzerakada ekonomikoaren, zorraren krisiaren, BPG eta defizitaren inguruan hausnartu eta honen aurrean hartu beharreko neurriak eta lehiakortasuna aztertuko dira. Jardunaldia 9:30ean izango da, eta 943654501 telefonoan eman daiteke izena.

**AHORA!**  
**ASTEAREN**  
**MAIATZAK**  
**19tik**  
**25era**

**GAUR**

17:30ean Skate ikastaroa Usabalgo parkean  
 20:00-23:00 Sardina-jatea Zerkausan  
 22:00etan Sakramentinoetan Lehiaketako bideoak eta Bonberenea txaranga eta lagunen kontzertua

**BIHAR**  
 Goizean Argitxo jolasa eta mural pintaketa Trianguloan  
 Eguerdian Tolosa Kantari & Dultzaineroak  
 Egun osoan Txapin festa (baltsa jaitsiera, bazkaria, jolasak...)  
 20:00-23:00 Sardina-jatea Zerkausan eta 22:30ean Zesuma taldea

Aste osoan (17:00-20:00):  
 Tolosako euskal idazleak erakusketa Liburutegian eta Ahora pintxoak tabernetan

MMK13 TOLOSA

# La Jodedera, Atekabeltz Eguna eta Eskulangintza azoka asteburuan, Leitzan

Gaur izango da euskal kubatar taldearen kontzertua, Torrean; ekitaldi ugari izango dira bihar, eta etzi azoka

Iñigo Terradillos Leitza

XXXVI. Kultur Aroaren bigarren asteak asteburu beteak dakar. Batetik, La Jodedera taldearen eskutik Kubako eta Euskal Herriko musika tradizioen uztarketaz gozatu ahalko da, gaur gauerdian Torrean. Aurretik, 17:00etan, Erleta eskolako haurren dantza saioa izango da zinean.

Bihar, berriz, Atekabeltz herri-guneko festa izango da. Hala, 11:30ean umeentzako jolasak eta serigrafia tailerra egingo dituzte; 14:30ean kubatar erako bazkaria izango da; 17:30ean Atekatik plazara herri jokoa egingo dute; 20:30ean, plazatik abiatuta bertso poteoa izango da Leitzako bertso eskolako kideekin, eta 23:30ean, kontzertuak. Atekabeltz Egune-ko ekitaldiez gain, bihar, murrizketen aurkako lip dub-a grabatuko dute 16:45etik 17:00etara bitarte, murrizketen aurkako plataformak deituta, eta jende ugari parte hartzea espero dute.



'Emakume baseritarren begiradak' aurkeztu zuten astelehenean. HITZA

Halaber, Jeiki abesbatzaren eskutik, *Munduko folklorea* kontzertua izango da, 20:00etan karra-pen.

## Igandean, 56 mahai

Bestalde, etzi, igandean, XXXV. Eskulangintza azoka hartuko du Leitzako plazak, 11:00etatik aurrera. Elikagai nahiz artisautzako 56 mahai izango dira. Egurra-ekin eginikoak, bitxiak, kristalezko materialak, txotxongiloak, kosmetika produktu naturalak, mermeladak, ogi ekologikoak... izango dira eskuragarri. Antola-

tzaileek azaldu bezala, garai batean postu gutxiago izaten ziren, baina azken urteetan gorakada nabaritu dute, eta aurten ia zokopuru antzekoa izango da, beraz, «gustura» daude. Hauetak gehienak Euskal Herriko txoko guztietatik etorritakoak dira.

Bestalde, datorren astean ere hamaika ekitaldi izango dira. Perritz tabernan bigarren urtez Mendia Kirola eta Abentura zinemaldiko saioak izango dira gauean, eta ekainaren lehen Euskal Herriko Mendi Erronka proba izango da.

# Parte hartze bidez definitu nahi dute Maxurrenea etxea

Erabilera anitzeko kultur etxea egitea proposatu du udalak; herritarrek iritzia emateko aukera dute

I. Terradillos Leitza

Ekainean parte hartze prozesua jarriko du abian Leitzako Udalak herritarrekin, eta bertan diseinatu dute Maxurrenea etxearen proiektua. Behin zehaztuta dagoenean, Nafarroako Gobernuari aurkeztuko diote.

Laster herritar guztiak euren etxeetan jasoko dute udalak Maxurrenearentzat eginiko proposamena, triptiko baten bidez. Proposamen horretan, Maxurrenea erabilera anitzeko kultur etxe moduan aurreikusten dute, erakusketentzat eta emanaldientzat egokituriko geletan, musika eskola bertan kokatzeko geletan, liburutegiarekin edota bilera geletan. Halaber, eraikinaren kanpoaldean duen lur zatian baratza sozialak jartzea ere aurreikusit dute.

Herritarrek proposamen horren inguruko iritzia emateko aukera izango dute, eta euren ideiak aurkeztu ahalko dituzte. Azkene-

an denen artean adosturiko proiektua zehaztea da udalaren helburua.

## Ekimenek aurrera

Bestalde, Maxurrenea herriari itzultzea eskatzeko ekimenek aurrera jarraitzen dute, Maxurrenea Herritzat plataformak bul-tzatuta. Dagoeneko 800 sinadura baino gehiago bilduak dituzte, eta euren erronka 1.500 sinadura jasotzea da. Hala, igandean Leitzako plazan izango den Eskulangintza Azokan mahaia jarriko dutela adierazi dute, eta bertan sinatzeko aukera izango da.

Bestalde, herriko eragileekin ere bildu dira plataformako kideak, eta taldeetako eta elkarteetako kideen artean kanpaina zabalteko konpromisoa hartu dute.

Horrez gain, Nafarroako Gobernuak ekainean erdialdeko Maxurrenea etxearen egoera eta euren eskaera aztertuko dutela aurreikusten dute, eta aldarrikapena kalean presente egotea garrantzitsua dela iritzita, manifestazioa deitu du plataformak ekainaren 8an. Leitzako kaleetan zehar izango da, 12:00etan abiatuta. Bada, herritar guztiak gonbidatu dituzte bai bertan parte hartzera, bai eta euren eskaerarekin bat eginez sinatzera.

# Garbilekuen informazioa eskura

I. Terradillos Leitza

Leitzako Aieneko garbilekuan panel informatiboa jarri berri du udalak. Bertan, garbilekuen funtzioa deskribatzen da eta garbitzeko erabiltzen ziren ontziak, etxeko jaboia edo sabea edota arropa eramateko saskiak nola-koak ziren azaltzen da. Horrez



Aieneko garbilekuko panela. HITZA

gain, 1866. urtean eraikitako Aieneko garbilekuari buruzko azalpenak ematen ditu, eta baita Aresoko garbileku bereziaren inguruan ere. Halaber, antzina Leitzan zeuden lau garbilekuen inguruko informazioa ematen du. Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez eta katalunieraz jarri dute informazioa.



Maxurrenea herriari itzultzea eskatzeko eragileek egindako agerraldia. HITZA

## ● Hilberriak eta urteurrenak

**ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

**JOSE ANTONIO IZAGIRRE IRASTORZA**  
(Mikel Izagirre irakaslearen aita)

*Beldur naiz sufrimenduagatik beldur ere bukaeragatik beldur naiz bakardadeagatik beldur baina zergatik ?*

*Beldurrek txiki uzten naute indargabeturik aurre egitea ez dut besterik geratu ez naiz izozturik*



TOLOSA, maiatzaren 24an

**JOSE ANTONIO IZAGIRRE IRASTORZA**  
(Bernarda Gorostegiren alarguna)

Maiatzaren 22an hil zen, 93 urte zituela.

Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Bere seme-alabak: Antton eta Izaskun Elizaran, Jose Manuel eta Marian Eceizabarrena, Xabier eta Karmele Legorburu, Mikel eta Ana Arruebarrena; Bilobak: Manex, Edurne, Miren, Ekaitz, Maialen, Maddi, Ane; anai-arrebak: Josetxo (†), Maria eta Jose (†), Jacinta, Jose Mari eta Maritxu (†), Seberri eta Jose, Jesusa eta Jose Antonio (†); ezkon anai-arrebak: Rafaela eta Asun; ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde, otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzeteak, GAUR OSTIRALA arratsaldeko ZAZPIETAN Tolosako SANTA MARIA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik mila esker.

**Oharra:** Gorpu bella Tolosako Oriá Tanatorioan dago, GAUR OSTIRALA goizeko 11:45ak arte.

TOLOSA, maiatzaren 24an

**Helbidea:** Arzabalza baseria.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@hitza.info

**Tolosa Herria  
Hedabideak**

**BERTAKO  
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi  
euskara  
taldea**



eta Tolosaldeko  
eta Leizaldekoko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

## Agurrak



### Urte askoan!

**Eihar Lertxundi Romo (Amezketan).** Bihar urtebete! Zorionak aiton-amona eta osaben partetik, eta bereziki arreba Arhanek.



### Urte askoan!

**Irati Uranga Lazkano (Aldaba Txiki).** Gaur urte bat! Zorionak familiaren partetik.



### Zorionak

**Eider Tobar (Ikaztegieta).** Zorionak astearteko partez, eta muxu bat Irati eta familiaren partetik.

### AGURRAK

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

●●●●● agurrak

## Agenda

### GAUR

#### DEIALDIAK

- **Anoeta.** Herriko Anitz Dantza Taldearen bilakaeraren ikuskitzuna izango da, kiroldegian, 22:30ean.
- **Leitza.** Kultur Aroaren barruan, 09:30ean, entrenamendu mentala izango da gazteen zatitza, institutuan. 17:00etan, zinean, Erleta eskolako ikasleen emanaldia izango da. Torrean, 00:00etan, La Jodedera taldea.
- **Tolosa / Hernialde.** Tolosaldeko Mankomunitatearen Birziklapen Bira Tolosan goizean Samaniego ikastetxean izango da, eta arratsaldean Zerkausian Hirukidekoekin eta herritarrekin. 18:00etan, berriz, Hernialden.
- **Zizurkil.** Maiatza Saltsan ekimenaren barruan, Kantu Jira egingo dute Elbarrean, 20:00etatik aurrera.

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

### BIHAR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Azpiroz, L. Amaroitz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

### ETZI

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.
- **Leitza.** Campos, M. Z.

Elbarren, 52.  
Telefonoa: 112.

### ETZIDAMU

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2.

Telefonoa: 943 67 01 28.

- **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

# TOLOSALDEA

LANBIDE HEZIKETA  
INSTITUTUA

Eleanitza



**ziklo guztiak  
euskaraz**

**AURREMATRIKULAK** Maiatzaren 27tik Ekainaren 7ra

## ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak
- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

## GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanika
- Informatika
- Administrazio eta Finantzak
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Automatizazio eta Robotika industrialia
- Metal eraikuntzak